




euskal herriak
bere eskola

ALDARRIKAPEN TAULA



**lanbide eskola
euskaraz**

Testu hau Euskal Herriak Bere Eskolak egin du 2007an Altsasun egin zituen III. Nazio Mintegietan zehaztutakoaren arabera. Bere helburua Aldarrikapen Taula berritzea da eta ezin uler daiteke beste aldarrikapenetatik bereizia.

Euskal Herriak Bere Eskolak Hezkuntza Sistema Nazionalaren bidean hainbat ildo jorratzen ditu esku artean duzuen hau horietako bat izanik.

Informazio gehiagorako:
<http://www.euskaleskola.org>



Lan hau Creative Commonsen cc-by-sa-2.5 lizentzia pean argitaratzen da. Libreza zara bertan dagoen edukia partekatu eta adierazteko, edozein bide erabilita, beti ere egilea aitortu eta modu berdinean partekatzen baduzu.

Euskal Herriak Bere Eskola
2008ko Azaroa

LANBIDE ESKOLAK EUSKARAZ: EHBEren PROPOSAMENA

0. SAR HITZA

Lanbide Heziketak hezkuntza prozesuaren beste eskailera bat dira. Beraz, edozein ikas adar bezala, hauen egitura-ketak eta izaerak zuzeneko eragina du gure herriaren bizimodu eta moldeetan. Ikasketa hauek bereziki lan mundura begirakoak izanik, Euskal Herriaren lan mundu eredia hauei estuki loturik doan kontzeptua da. Gazteak ahalik eta lasterren lanean hasteko ikasketa tekniko soil gisa ulertuak izan diren arren, ikasketa etapa hau hori baino askoz gehiago da.

Lanbide heziketak ezin dira izan egungo gizarte kapitalistak bizirauteko beharrezkoa duen lan mundua berproduzitzeko tresna, gure herriak dituen behar ekonomiko, sozial, teknologiko edota kulturalak asetzera bideratuta egongo den heziketa eskaintza teknikoak izan behar luke. Gure herriaren garapenari erantzungo dioten Lanbide Heziketak alegia. Horretarako langile prestuak ezinbestekoak dira, egungo errealitatea ulertu eta eraldatzeko gaitasuna izango duten langileak hain zuzen, eta ez makina hutsak.

1. EGOERAREN AZTERKETA

Azkeneko urte hauetan Heziketa zikloen ugaltzea ezagutu du Euskal Herriak. Izan ere, gero eta ikasle gehiago hurbiltzen dira heziketa zikloak eskaintzen dituzten ikastetxeetara (batez ere portzentaiei dagokionez). Bide honetan, hainbat arrazoi aipatu behar dira, ikasketa hauek aukeratzen dituzten ikasle kopurua hain handia zergatik den ulertzeko.

Lehenik eta behin, unibertsitateen gain saturazioa dago. Oso ikasketa gutxi daude momentuotan etorkizuna eskaintzen dutenik gure herriko jendartean. Milaka dira lizentziatutako edo diplomatutako ikasleak, ikasketak bukatzen dituztenean lana aurkitu ezinik dabilzanak. Joera hau, azkeneko urteetan Euskal Herrian dauden campus ezberdinetan nabaritu da, ikasketa batzuen etorkizun hurbila, ikasle falta dela eta, kolokan jarritz. Lanbide Heziketetan, aldiz, lan egiteko perspektibak, momentuz bada ere, hurbilagoak dira, ikasleen gehiengoa hilabete gutxi batzuen buruan lanean daudelarik.

Bestalde, unibertsitate ikasketetako iraupena urteetako izan ohi da (3,4,5,6...), eta urte horietan zehar, klase magistralak dira nagusi, klase praktikoen kalterako. Honek ikasketa batzuk erabiltzen duten programa dela eta, motibazio falta zein gogaitasuna bultzatuz. Heziketa zikloetan, berriz, gehienez urte ta erdiko formazio teorikoa egon ohi da, ondoren praktikak egiteko aukera zabaltzen delarik. Formazio praktikoari lehentasuna ematen zaio.

Ezin da aipatu gabe uzi Bologna Prozesuak dakartzan aldaketak: Full-time student izeneko filosofia gailentzen da eta derrigorrezko eskolak, etxerako-lanak eta azken finean dedikazio osoa behar duen ikaslea sortzen dute. Honela ikasi ahal izateko lan egin behar duenak edo beste gauza batzuk egiteko denbora nahi duenak nekez egin ahal izango ditu ikasketak unibertsitate batean.

Beste faktore garrantzitsua ikasketa berrien agerpena da. Izan ere, betiko ikasketen artean krisialdia dagoen arren,



ikasketa berriak beti sortzen dute erakarpen berezia ikasleengan. Azkeneko urte hauetan, hainbat heziketa ziklo berri sortu dira, ikasleriaren interesa erakarritz.

Aipatu faktoreek, gehi egon daitezkeen beste batzuk (instituzio zein hezkuntza sailetatik egin diren kanpaina izugarriak, kasu) ekarri dute heziketa zikloen gaineko “boom” delakoa.

Dena den, Lanbide Heziketen gorakada honek, oro har hezkuntzan dagoen arazoa agerian utzi eta euskararen egoera inon baino gehiago larriatu da.

EUSKARA

Egoera juridiko-politiko aztertzeko orduan, bi dira kontuan izan beharreko puntuak; batetik, Euskal Herria bi estatu eta bost administrazioen menpean dagoela, eta bestetik, ez dagoela inon jasota Lanbide-Heziketen euskalduntzea osotasunean bultzatzeko araurik, atal partzialak jasotzen dituzten arauak egon arren. Administrazio ezberdinen jarrerak ezberdinak diren arren, ez dago inon euskalduntze plangintzarik, eta gure herria bere osotasunean hartuko duen euskalduntze plangintzaren beharra inoiz baino garrantzitsuagoa da.

Frantziar estatua

Frantziar estatuko Lanbide-Heziketa 1993an onartutako legearen arabera antolatzen da. Horren arabera Lanbide-Heziketa bi eremutan antolatzen da:

Lehenengo talde batean ikasketa terminalak daude: hau da, ondoren ez dago gehiago ikasterik, hots, lan mundurako irteerak dira. Ikasketa terminal hauek, edo CAPak, derrigorrezko hezkuntzan irakaskuntza-sistemak ikasle txar moduan aitortzen dituen horientzat dira. Bide batez, CAPak bi taldetan antolatzen dira: derrigorrezko hezkuntza gaindituta izan behar ez dutenena (enpresetan betetzen dituzten hiru urtetako ikasketak dira) eta derrigorrezko hezkuntza gainditurik izan behar dutenena (bi urtetako ikasketak dira).

Bigarren talde batean jarraipena duten ikasketak daude. Hauek ere bi taldetan banatzen dira: BEP ikasketak, derrigorrezko hezkuntza gaindituta (ez dira ikasketa terminalak, bi urte ondoren, azterketa bat egin eta batxilergoa egiten jarrai dezakete edo goi mailako heziketa ziklo bat aukeratu, azken hauek bigarren taldea osatzen dute, hauen bukaeran bi aterabide daudelarik: lan mundua edo unibertsitatea.

Lapurdi, Nafarroa Beherea, Xiberoa

Hiru herrialde hauetan ez dago heziketa zikloak euskaraz ikasterik.

Espainiar estatua

Espainiar estatuan 1997an ekin zitzaion Lanbide-Heziketen erreformari. Hiru helburu zituen, batez ere: lan merkatuak eskatzen zituen langile kualifikatu berriei bide egitea, Europar Batasuneko ikasketekin espainiar estatuan irakasten zirenak homologatzea eta azkenik, Lanbide-Heziketak prestigiatzea ikasleak bertaratzeko asmoarekin.

Lanbide-Heziketak hiru taldetan banatzen dira: goi mailakoak (batxilergoa egin behar da), erdi mailakoak (derrigorrezko irakaskuntza gainditu behar da) eta Gizarte segurantzakoak (derrigorrezko irakaskuntza gainditu gabe dutenentzat, gutxienez titulu bat izan dezaten).

2002an Lanbide Heziketak arautzeko lege berri bat onartu zuten Madrilen, hiru aldaketa nagusi planteatu dituena: Lehena ikastetxe integratuen (heziketa zikloak eta formakuntza jarraia eskaintzen dituzten Lanbide-Heziketetako ikastetxeak) desagertzea, sorrera estatuaren esku geldituz; bigarrena, ikastetxeen zuzendaritzaren hautaketa admi-

nistrazioaren esku gelditzea; eta hirugarrena, ikastetxea eta enpresaren arteko harremanak estutzea, enpresen partehartzea ikastetxeetara zabalduz.

Araba, Bizkaia eta Gipuzkoa

Hiru herrialde hauetan legez euskaraz ikasteko eskubidea dagoen arren, izatez eskubide hori ez da bermatzen. Neurri isolaturen bat hartu da baina ez dago euskalduntze plangintza orokorrik. Gainera, neurriok irakasle, ikasle, guraso edo elkarteen borondatean oinarritzen dira. Horrela, kopuru bat dago finkatuta heziketa zikloa euskaraz eman dadin (10 ikasle). Euskarazko materialgintza bultzatzeko dirulaguntzak bideratzen dira Hezkuntza sailetik (oso motelak eta ez dira nahikoak) eta internet-en hainbat helbide sortu dira material euskalduna eskuragarri egoteko (eraginkortasuna falta zaio). Irakasleen birziklapenari begira, neurri orokorra den arren, Lanbide-Heziketetan gutxiago aplikatzen da.

Nafarroa Garaia

Jakina denez, herrialde honetako hainbat zonaldeetan euskarak ez dauka ofizialtasunik. Beraz, zonalde horietan ikastolen bidez bakarrik sortu daitezke euskarazko heziketa zikloak (zoritxarrez, ikastola hauen egoerak oztopatzen du heziketa zikloak sortzea). Bestalde, euskarazko talde bat sortzeko ez dago kopuru finkorik. Administrazioaren erabaki politikoen menpe dago eskaintzea edo ez. Lanbide Heziketetan ez daude hizkuntza ereduak definiturik. Ondorioz, egun dagoen eskaintza guztia gazteleraz izatera kondenatuta dago. Dena den, badaude ikastetxe batzuk, non ofizialki ez bada ere, euskaraz irakatsi egiten duten. Honen arazoa da ofiziala ez izatean borondatean oinarritutako eskaintza dela, beraz egun batetik bestera desagertu daiteke.

IZAERA

Izaerari dagokionez, Lanbide Heziketen eskaintza normalean ez da zonalde ezberdinen behar espezifikotara egokitzen. Hau da, ez da kontenplaten eremu ezberdinen kasuan bertako baliabideen aprobetxamendua eta zonalde beraren biziraupen eta garapenerako ezinbestekoa den heziketa eskaintza. Aipatu beharra dago nekazaritza, abeltzaintza edo arrantza bezalako sektoreek bizi duten egoera larria, eta lanbide heziketek horri irtenbidea emateko duten garrantzi eta beharrezkotasuna. Gure herriko berezko lanbideak izanik, hauen eraldaketa eta egokitzapena bideratuko duten hezkuntza prozesua beharrezkoa da, eta lanbide eskolak dira horretarako gakoak eskaini behar dituztenak. Egun ordea, ikasketa etapa hau merkatuak exijitzen dituen langileak prestatzeko bide soila dira, egoerari buelta emateko baliabideak eskaini beharrean egokitzapen hutsa egitera bideratuak daudelarik.

Azpimarratzekoa da ere, ikasketa mota hauetan emakumeok pairatzen dugun diskriminazio egoera. Ziklo ezberdinen eskaintza egiterakoan, mekanika, elektrizitate edo teknologia berriekin harremana dituztenak gizonezkoentzat bideratuak dauden bitartean, erizaintza, gizarte lana edo irakaskuntzarekin loturikoak emakumezkoekin lotzen dira. Norbanakoaren aukera librea dela esaten den arren, era inkontziente batean gizartean existitzen diren rola berproduzitu egiten dira emakumezkoak lanbide konkretu batzuetara bideratuz. Ikustea besterik ez dago hainbat ikastetxetan emakumezkoek ikasketa prozesua garatzeko dituzten traba eta oztopoak tailerrak, baliabideak... ez daudelako egokituak.

2.- LANBIDE ESKOLEN ERALDAKETARAKO LEHENTASUNAK

EUSKARA

Sektoreka lehentasuna duten heziketa zikloak

Lehenengo sektoreari lotuta daudenak (Nekazal, artzain, arrantza eskolak)

Irakaskuntzarekin harremana duten heziketa zikloak.

Administrazioarekin harremana dutenak.

Zerbitzu zein giza harremani loturikoak (erizaintzakoak, psikologia, soziologia...)

Euskaraz eskualdeka egon beharko liratekeen heziketa-zikloak

Euskal Herriko eskualde guztien mapa egin behar da. Bertan, heziketa-zikloen eskaintza, eskaria eta beste hainbat irizpide aztertuz, lehentasunak finkatu beharko dira, Lanbide-Heziketen euskalduntzeari begira. Bertan hainbat faktore kontutan izan behar dira, hala nola, ikasleen mugikortasuna, eskualdearen izaera euskarari begira, inguruko enpresa zein bizimoduen izaera, heziketa ziklo berdina bi, hiru edo ikastetxe gehiagotan irakasten den ala ez,...

Materialgintzan lehentasunak

Euskaraz dauden heziketa-zikloen kopurua txikia den arren, hauen arazoa erabiltzen duten euskarazko ikas materialen eskasia izan ohi da. Horregatik, lehentasuna eskaini behar zaio material arloan jadanik euskaraz irakasten diren heziketa-zikloei.

Praktikak

Gaurdanik, euskaraz ematen diren zikloetan, praktikak ere euskaraz gauzatzea ahalbideratu beharko litzateke. Praktiken aukera egiterako orduan ikasle zein enpresen hizkuntza profila identifikatu beharko litzateke.

ZONALDEAREN ARABERAKO LEHENTASUNAK

Lehenengo sektorea hil zorian dagoen zonaldean

Ezinbestekoa da, zonalde hauek dituzten beharren gaineko azterketa egin eta hauen araberako heziketa zikloak osatzea. Egoerari aurre egin, eta bide berritzaileak ireki beharko dira sektore hauen bermoldaketa eta etorkizuna bermatze bidean.

Behar bereziak dituzten eremuei egokitu

Demagun Euskal Herriko eskualde bat aberatsa dela mineral mota batean. Aberastasun horri bide eman eta zonalde horren onurarako ustiapena zein tratamendua bideratuko duen hezkuntza mota lehentasunezko egitasmo bilakatu beharko litzateke. Egungo heziketa eskaintza molde ekonomiko-politiko orokorrari dago hertsiki loturik, ondorioz ez dira gure herriak dituen aberastasunak herriaren mesedetara egokitzen.

SEXUEN ARABERAKO BEREIZKETEKIN AMAITU

Baliabideak emakumeontzat egokitu

Egungo tailer, klase etab. tako egoera emakumeon beharrei egokitzea ezinbestekoa da (komunak, tornuen altuera..). Emakumeok zerbait arraro egiten ari dugula sentitzeak ez dauka zentzurik, ondorioz beste klase kide guztien egoera eta aukera berdinak izan beharko ditugu.

Rolak gaindituz, aukera libre bultzatu

DBHko 4. mailan nola batxilergoan emakumeok aukera aske bat egiteko neurriak bultzatu beharko dira. Horretarako ezinbesteko papera jokatu dute ikastetxeetako orientatzaile eta irakasleek. Zerikusi handia izango du ere zentroetan hezikidetzaren ikuspegia txertaturik dagoen edo ez.

3. LANBIDE HEZIKETETAKO IKASTETXEAK ERALDATZEKO NEURRIAK

EUSKARA

Klaseak euskalduntzeko hartu beharreko neurriak

Ratioen desagertzea.

Euskaraz ematen diren zikloak identifikatu eta plazaratu. Ofizialki eskaini.

Matrikulazio garaian ikasleari modulua euskaraz egin nahi duen galdetu behar zaio.

Eskualdeko lanbide heziketetako ikastetxeen artean elkarlana bultzatu. Ikasle euskaldunen dispartzioarekin amaitu.

Irakasle erdaldun elebazarren euskalduntzerako plan integrala abian jartzea.

Irakasle euskaldunen aprobetxamendua: euskaldunak diren irakasleak euskaraz eman behar dituzte klaseak, mugikortasuna ahalbidetuz lehentasuna duten arlo zein zonaldeetara.

Irakasle euskaldunen kontratazioari ekitea.

Materiala euskalduntzeko hartu beharreko neurriak

Euskarazko materialaren ezagupena Euskal Herri osora zabaltzea, eta berau eskuragarria izatea, beharrezkoak diren bitartekoak abian jarri. Dagoen materiala ezagutzera eman behar da, eta horretako internet izan daiteke tresna egokia.

Ikastetxeen arteko elkarlana bultzatu irakasleen artean sare bat sortzeko.

Irakasleen liberazioak martxan jartzea, lan baldintza egokiak sortuz.

Materialaren euskalduntze prozesuan lanean ari diren elkarteei baliabide zein hitzarmen sendoagoak sustatu.

Ikastetxeko funtzionamendua euskalduntzeko hartu beharreko neurriak

Ikasleei begira: euskara klaseen antolakuntza (zonalde euskaldunetan dauden eta ikasle erdaldunak gutxiengoa diren ikastetxeetan batez ere), euskara klaseak ikasteko erraztasunak jartzea.

Langileriaren kontratazioari begira: lanpostuan euskaraz aritzeko gaitasuna erakustea (administrazioan, atezaintza,...), etengabeko euskara prestakuntza eskaintzea.

Barne agiri zein gutun, ohar edo bestelako informazio bitartekoak euskaraz izan daitezzen bermatzea (askotan beharrezkoa izango da bi hizkuntzetan zabaltzea, baina beste askotan euskaraz soilik izan beharko lirateke).

Errotulazioetan euskaren lehenespena

Eskolaz kanpoko ekimenak euskaraz izatea

Kanpo irudia euskaratzea.

Praktiken euskalduntzeko hartu beharreko neurriak

Ikasleei praktikak euskaraz egiteko eskubidea aitortzea, horretarako enpresaren euskara maila aztertuz.

Enpresari gutxienerako batzuk eskatzea: Kontseiluaren plan estrategikoa sinatua izatea, praktiketako ikasketei jarraipena egiteko tutore euskaldun bat izendatzea.

EREMUEN BEHARREI AURRE EGIN

Lehenengo sektorearen krisiari aurre egiteko neurriak

Nekazaritzaz, abeltzaintzaz edo arrantzaz bizi izan diren eta lanbide gisa hil zorian dauden zonaldeetan heziketa eskaintza berezitua bultzatu.

Eskaintza hau ezin da izan molde zaharrak berproduzitzeko tresna, egungo egoera eta arazoei aurre egin eta sektore honi etorkizuna ahalbideratuko dion ikasketa prozesua baizik.

Behar bereziak dituzten eremuetako gabeziak asetzeko neurriak

Eremuak eta beharrak berak detektatu eta hauen gaineko ikasketa prozesua bultzatu.

Zonaldearen aprobetxamendu eta garapenerako ezinbesteko tresna gisa irudikatu.

AUKERA BERDINTASUNA HELBURU

Ikastetxeetako azpiegiturak eta funtzionamoldeak egokitu

Tailerretako baliabideen azterketak egin eta emakume zein gizonezkoen artean dauden ezberdintasun fisikoak aintzat hartu: komunitateko egoera, makinaren posizioa...

Emakume eta gizonezkoen ezberdintasunak onartuz, heziketa prozesua aukera berdintasunean garatzen dela ziurtatu.

Rolak gainditzeko neurriak

Ikastetxeetan emakumezkoek aukera berdintasunean erabaki dezaten moldeak bultzatu.

Hezkidetzan oinarritutako hezkuntza prozesua garatu.

4. EHBEren EGITEKOAK

Egungo egoera

Lanbide heziketetan euskararen egoera larria den arren aldarrikapena ez dago jendarteratua.

Lanbide Heziketetako ikastetxe gehienek ez dute aldarrikapena bere hartu.

Irakasleen inplikazio eskasa. Bi urtetako ikasketak izatean ikasleek aldarrikapenari jarraipena emateko zailtasunak.

Mugimendua egituratzearen beharra

Lanbide heziketako ikastetxeei konpromisoak eskatu.

Irakasleen inplikazioa.

Ikasle mugimenduaren aldarrikapena bultzatu.

Lanbide Eskolen euskalduntzearen aldeko ikastetxeen sarea osatu elkarlana bultzatzeko arlo ezberdinetan (materialgintza, eskaintza zentralizatuak...)

Lanbide eskoletan euskarak bizi duen egoera plazaratu behar da. Aldarrikapena jendarteratu.

Euskal Herrian, 2008ko azaroa
Euskal Herriak Bere Eskola